

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Morea gailendu zen

Ekitaldi ugari izan zen Andoainen, aurreko asteburuan / 3-9

AIURRI

Euskaraldia: izena emateko epea, zabalik

Martxoaren 15ean abiatuko da herritarren izen-ematea. Internet bidez egin behar da, baina Andoainen eta Urnietan mahaia jarriko dute datozen egunetan. /16



Jabekuntza Eskolaren udaberriko eskaintza aurkeztu dute eta, dagoeneko, izena eman daiteke /7



Ana Usabiaga, Andoaingo Txirrindulari Eskolako nesken kirola zuzendaria /12-13

Lanek aurrera egingo balute, Besabitik izango luke sarbidea Erreka zentral eolikoak /11

Uma Ulazia saiakeragileak 2019ko eta 2023ko greba feministak aztertu ditu /8-9



Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>





Elkarretaratzea egin zuten aurreko larunbatean, San Juan plazan. AIURRI

Elkarretaratzea, martxoaren 8an

Elkarretaratzea deitu zuen Urnietako Udalak, aurreko larunbatean, martxoaren 8arekin bat eginez. Emakume* Langileen Nazioarteko Eguna izanik, hainbat herrikide elkartu zen San Juan plazan

Erredakzioa URNIETA

Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) egun seinalaturako argitara eman zuen adierazpenarekin bat egin zuten Urnietako udalean ordezkariak duten hiru alderdi politikoek. Tokitok harago, nazioartean izan den

garapenari arreta jarri diote aurtengoan. Izan eren, Beijingen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian adostutako akordioek genero-berdintasuna, emakume eta neska guztien ahalduntzea eta giza eskubideak gauzatzeko mundu-

ko ibilbide-orria abian jarri zuten. San Juan plazan Ainhoa Ostolazak (EAJ-PNV), Consuelo Frutosek (PSE-EE) zein Nagore Brelek (EH Bildu), elkarrekin, EUDELek egun honetarako egin-dako adierazpena irakurri zuten, elebitan.

KOMUNITATEA

ITAIA BETERRI-BURUNTZA

Martxoaren 8an mobilizatzearen garrantziaz

Azken hilabeteetan areagotzen ari diren ideia eta jarrera erreazionarioen eta matxisten aurkako borrokan, emakume langileok lehen lerroan egon behar dugula aldarrikatu nahi izan dugu, aurtengo martxoaren 8aren bueltan. Emakumeon aurkako jarrerak instituzioetan, sare sozialetan zein kalean, zabaltzen ari dira. Honen adibide izanik, matxismoaren existentzia ukatzen duten ideiak. Baina jakin badakigu, kontrakoa esan arren, emakumeok zapalduak egoten jarraitzen dugula, eraso

matxistak pairatzen jarraitzen dugula. Honen adibide dira, Gasteizen emakume adingabe bati egindako eraso matxista edo Sanferminetan duela 9 urte egindako bortxaketagatik zigorra murriztu berri izana bortxatzaileetako biri.

Egoera larri honen aurrean posizionatzeko momentua dela uste dugu: emakume langileon zapalkuntza betikotzen jarraitu edo matxismoaren eta jarrera erreazionario eta faxisten aurka borrokatzeko hautua egin. Itaiatik, aurtengo martxoaren 8an borrokarako deia egin nahi dugu. Bere

jatorrian dagoen edukia eta izaera iraultzailea desitxuratuak izan dira, eta honekin batera aldarria edukiz hustu da. Izan ere, eskuineko alderdiek ere diote berdintasunaren alde daudela, haiek direlarik instituzioetan ideia matxista eta atzerakoiak zabaltzen ari diren agenteetako bat. "Matxismoaren aurrean, emakume langileok borrokar!" lemapean, eta Buruntzaldeako Itaiatik mobilizazio honetan parte hartzea gonbidatzen dugu herritar oro.



EAJ-PNVko, PSE-EEko eta EH Bilduko zinegotziek irakurri zuten adierazpena.

Hartutako konpromisoak

Urnietako Udalak hainbat konpromiso hartuko ditu, "euskal udalek genero-berdintasunaren lorpena bizkortzeko mugimenduarekin bat egin dute, emakumeen eta nesken ahalduntzearen eta emakumeen eskubideen defentsaren aldeko apustua eginez":

1. Sustapen-egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokar buruzko politikak garatzeko, Berdintasunerako Politika Publikoen Kalitate-Estandarren arabera.
2. Emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea, horien bidez, berdintasun politika publikoetan, emakumeak solaskideak izan daitezten eta eragin dezaten.
3. Tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea.
4. Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko.
5. Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.
6. Zaintzen ekonomia eraldatzeko tokiko prozesuak abian jartzea, ikuspegi feministatik.
7. Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokar buruzko tokiko ekintza-planetan jasotako agenda feministen gaineko kontuak ematea, aldian-aldian.

EH Bilduren zehaztapena

Ekitaldiaren bezperan, zalantzati agertu zen EH Bildu, adierazpeneko 2. puntuaren gainean Gobernu taldeak izandako prozedurarekin: "Bertan babesturiko bigarren puntuari muzin egin dio Gobernu taldeak. Ez du inongo momentuan herriko errealitatea kontuan hartu, ez eta bertako talde feministik ere. Argazkia da soilik bilatu dutena".



Urnietako
udala

**Erredakzioa** ANDOAIN

"Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak! Gora borroka transfeminista!". Hori zen manifestazioaren goiburua eta, lelo horrekin, amaiera eman zioten Zumea plazan irakurri zuten adierazpenari. Nazioartean gailentzen ari da, sarri, ultraeskuinaren ideekin bat datorren oldarraldia. Horren aurrean mugimendu feministaren erantzuna argia da: borrokan sakontzea. "Zapalkuntzen adibide dira sare sozialetako erreakzio misoginoak, borroka feminista arazo sozialen kausa gisa identifikatzeko joerak edo gure borroka kriminalizatzen duten adierazpenak. Horregatik, ekimen propiotik artikulatzen dugu faxismoaren aurkako borroka".

Feminismoa, alternatiba

Sustatzaileek Euskal Herri feminista dute helburu: "Faxismoari aurre egingo diogu eta borroka honetan ezinbestekoa da emakume eta gorputz disidente oro kalera atera eta egunerokoan lanean jarraitzea. Izan ere, feminismoak datorrenari aurre egiteko tresnak, bizi garen testuingurua aztertzeke eta ulertzeko teoriak eta ideologia nagusiarri aurre egiteko oinarriak ematen dizkigu. Horregatik, feminismoarekin posizionatzeko ausardia aldarrikatzen dugu, erosotasun-gunetik irteteko, erresistentziarako eta erasorako lubaki gisa". Patriarkatua ezbaian jartzea izan da mugimendu feministaren lorpenetakoa, azken urteotan. "Ezbaian jarri ditugu pribilegio batzuk, zalantzan jartzera; nagusitasuna espazio maskulinizatuetan borrokatu dugu, gizonen erreakzioa eragiteraino. Faxismoaren aurkako borroka kapitalismoaren, patriarkatuaren eta kolonialismoaren aurkako borrokarekin batera doala berresten dugu", adierazi zuten manifestazioaren amaierako adierazpenean.

Txalo artean amaitu zen manifestazioa. Segidan, bi bazkari izan ziren. Zuenak Oianumen egin zuen eta asanbladak, bere aldetik, Irunberri elkarteak.

**"AGERIAN
JARRI DITUGU
PRIBILEGIO BATZUK,
ZALANTZAN
JARTZERAINO"**

Manifestazio jendetsua

Andoaingo Asanblada Feministak dozenaka lagun elkartu zituen manifestazioan, azken urteotako joerari eutsita. Goikoplazan hasi eta udalerriko gunen nagusietatik igaro ondoren, Zumea plazan amaitu zen. Adierazpena irakurri zuten bertan

Atal berezia, webgunean

Martxoaren 8ari tarte berezia eskaini dio Aiurri astekariak, Aiurri.eus webgunean. Bertan aurki daitezke agendari loturiko hitzorduak eta albisteak. Aurreko asteburuan, Andoainen eta Urnietan antolaturikoak, bestalde, argazki-galeria eta bideoen bitartez zabaldu dira.



Goikoplazatik abiatu eta Nafarroa plazarantz joan zen manifestazioa. Agustin Leitza kalea zeharkatu ondoren, Kale Nagusirako bidea hartu zuten. AIURRI



Airetik hartutako irudia ekitaldiak izandako arrakastaren erakusgarri da. Bideoa Aiurri.eus gunean ikusgai dago. **AIURRI**

Andoaingo Irradaka ikusgarria izan zen

Entsegetan antzematen zen parte-hartzailea izango zela Irradaka dantza emanaldia. Eguna iritsita, Goikoplazan, erakustaldi ederra eman zuten partaideek. Taldean, eskutik helduta, ekimen berean... Esanahi handikoa izan zen Andoaingo Irradaka



Maite Sagaseta izan da Irradakaren sustatzaileetako bat. **AIURRI**



Ekitaldiarekin bat egin zuen emakume ugari. **AIURRI**



andoaINDARRA
euskaraz



Emakumeen afarira kalejiran joan ziren Andoaingo emakumeak, Plaza Moretik abiatuta. AIURRI



Emakume taldea, Juanita Alkain plazaxotik Ubitartera bidean. AIURRI



250 lagun elkartu zen Allurraldeko olanapean antolatu zuten afarian. AIURRI

Hitzordu morez beteriko asteburua

Martxoaren 8az harago, ekitaldi-sorta antolatu da Andoainen: Bertsotrikipoteoa eta solasaldia, ostegunean; kontzertua eta afaria, ostiralean; eta Irradaka, manifestazioa eta bi bazkari, larunbatean. More kolorea gailendu zen, Andoainen aurreko asteburuan



25 urte beteko ditu Axeri Dantza parekideak. Solasaldia egin zuten Basteron, eta Aiurri.eus gunean ikusgai dago. AIURRI



Bertsotrikipoteo transfemistaren geldialdia Irunberrin, hilaren 6an. TRAKA



Anari. BASTERO



Verde Prato. BASTERO



Susa argitaletzeko editore Leire Lopez eta Jule Goikoetxea idazlea "Politeismo bastarta" liburuaren aurkezpenean. ARMIARMA

Irakurketa- proposamenak, Liburutegiaren eskutik

Emakume* Langileen Nazioarteko Eguna igaro berri den honetan, Urnietako Udal Liburutegiak gaiarekin lotura duen irakurketa-proposamena egin du. Hona hemen, irakurle, zerrenda hartako zazpi liburu-proposamen

Erredakzioa URNIETA

Honatz zerrenda horretako zenbait, narratiba, saiakera eta poesia generoen bueltan, guztiak euskaraz sortuak.

BEKATOROSAK

Egilea: Dom Campistron
Generoa: narratiba (2021)

2019ko udan, egileak, Nafarroa Behereko hainbat herri txikitako zazpi lagun elkarrizketatu zituen, zazpi *bekatorosa*. Eta ondoren, paperera ekarri ditu haien borrokak, bakartasunaren mina eta bizi izan dituzten eraso homofoboak, baita beren

maitasun istorioak, elkartasun eta itxaropenak ere. Egileak zazpi lekukoen hitzak berresan ditu jatorrizko testigantzen bat-batekotasunari eta originaltasunari eutsiz.

JOSI ETA JOSI

Egilea: Itziar Moreno
Generoa: narratiba (2023)

Zergatik ateratzen gara kalera Martxoaren 8an? Zer gertatu zen egun hori hautatzeko? Claren istorioaren bitartez, ipuin ilustratu honek Emakume* Langileen Nazioarteko Egunaren abiaburura eramango gaitu,

aurreko belaunaldien lorpenak ezagutu eta haien borrokei segida emateko.

PLEIBAK

Egilea: Miren Amuriza
Generoa: narratiba (2024)

Nerabe paisaia rural-poligonero bat, institutuko korridore ateporalak, Morora busean jaistea eta belodromora motorrean igo-tzea, Hemendik At, Chenoa, Su Ta, lokaleko maromoak eta txosnetako Goi Gerlariak, Largo eta Bada Agarreko sukaldian, erantzun gabeko perdidak, behor hezurak, istripu bat.

Umezaroa elkarren itzalean zabuka igaro ostean, gaur da eguna kalean gurutzatu eta bat-tak bestea ignoratzen dutena. Distantzia horrek sorrarazten dion amorrazio retroaktiboak sakatuta zuzentzen zaio Jone Pollyri; neskatotan, ahoak nolahalala estali eta eskugaina esku-gainaren kontra igurtziaz musukatzen zuen txaleteko bizilagunari.

Ezer gertatu ez zenean gertatu zen guztia jasotzen du Miren Amurizaren bigarren nobelak, egonezin primario bat, partekatu izan zen bide baten adarkatzea. Sasoi baten erretratua da kontakizun hau, belaunaldi bat ordezkatzeko duten erreferentzia ugarirekin eta zikinak jandako hizkuntza batekin eraikia.

EZ DADIN BIZITZA ETEN

Egileak: Miren Aranguren Ainara Santamaria eta Monika Mendiberrri

Generoa: saiakera (2023)

Zaintza-lanetan inplikaturik dauden norbanakoei entzunda Emagin Elkartean egindako lanetik abiatuta, azken urteotan mugimendu feministaren aldarrien erdigunean egon den gaiak hausnartu dute hiru autoreek. Beterie, askotariko faktoreak kontuan hartuz eta bi ardatz hauen arabera: ikuspegi feminista eta ezagutza kokatua. Izan ere, zaintzaren inguruan sortzen den bereizkeriatik eta gorputzetik ez bada, kamutsa izanen da hartaz esaten dena. Egungo ereduak dituen mugak eta geruzak agertzean eta haren konplexutasuna ulertzean, lanen banaketa desorekatua gaingitu eta bizitza erdigunean kokatuko duen gizarte antolaketa bat osatzeko bidean has gaitezke, ez dadin inoren bizitza eten. Alta, helburu horrek errotiko aldaketak egitea eskatzen du, gure mundu ikuskera beste era batera definitzea. Horretarako, ezinbestekoa izanen da gaur garena baino zaugarriago, elkarren mende-koago eta eko-mendekoagoak agertzea. Iratzar fundazioak eta Txalapartak elkarlanean argitaratzen duten Iparrorratza bildumaren 8. alea da hau.

POLITEISMO BASTARTA: LAU EGUN ANGELA DAVISEKIN

Egilea: Jule Goikoetxea

Generoa: saiakera (2024)

2024ko maiatza. Jule Goikoetxea Angela Davisekin elkartzeko

prestatzen ari da kategoriako hotel bateko bere gelan. Davis Bartzelonara heldu berri da, bere 80 urteekin, gorputz sendo garaiarekin eta emantzipazio borrokaren aldeko determinazio agerikoarekin. Pentsalari feminista-marxistak lau egun igaroko ditu hirian, Fira Literal ideia eta liburu erradikalen azokan, eta Goikoetxea haren bizkartzain lanetan arituko da, etorkizuneko jainkosak zer behar, bera han.

Azokatik kanpo elkarbanatutakoak (taxi bidaiak, bizitzeko gogoz betetako taberna-zuloak eta jauregiak), elkarrekin pentsatutakoak (Sarah Ahmeden, Vandana Shivaren eta hoteleko garbitzaileen ahotsak) eta horietatik abiatuta irudimenak sortutakoak (jainkosak, Buladak eta giza holobionteak) biltzen ditu umorez eta bizitasunez blaitutako kontakizun honek. Monoteismo ororen kontra eta, batez ere, bizitzaren izaera gatazkatsuari esku biek helduta.

LURDES IRIONDO, ISILARAZITAKO AHOTSA

Egilea: Jon Martin

Generoa: saiakera (2024)

Ikerketa berri honek Lurdes Iriondo kantari eta antzerkigile ospetsuaren biografia berri bat proposatzen du. Genero ikuspegi zeharkatzen duen ekarpen berri bat da. Gaur egun, Lurdes Iriondori buruzko aipamenak eta liburuak kolektibo bereko gizona askorenak baino bakanagoak dira. Iriondoren aipamen garaiak egiten direnean, normalean, Ez Dok Amairu kolektiboaren barruan izan zuen rola aipatuz egiten dira, gizona izatearen itzalean. Historiak memoria maskulinizatzeke joera duela ikusiko dugu ikerlan honi esker.

ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA

Egilea: Mari Luz Esteban

Generoa: poesia (2019)

manifestu bat da esanguraz bete nahi den aldarri bat gai, arlo, eremu batean non esanahiak kerratzuz doazen eta errealtate berriak isilik ere garrasika hasten diren manifestu bat da zure garaiaren eta zure gizaratearen arrazoiaren aurka idazteko leiho bat zabaltzea etorkizunera.



Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikaria eta Haizea Barandiaran zinegotzia, pentsaurrekoan. AIURRI

Eskaintza berria, Jabekuntza Eskolan

Egun hauetan, Andoingo etxebizitza guztietara ari da iristen Jabekuntza Eskolaren eskaintza berria. Ohiko ikastaroez gain, bi berri aurkeztu dituzte: "Mundu digitala eta ahalduntzea" eta "Eskaladan sakontzen".

Xabier Lasa ANDOAIN

Haizea Barandiaran Andoingo Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasun lansaileko zinegotziak eta Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikariak ikastaroen xehetasunak eman zituzten, agerraldian. Aritz Alkain (PSE-EE) eta Txitxu Ruiz (EAJ-PNV) zinegotziek ere hartu zuten parte pleno aretoan antolatutako aurkezpen-ekitaldian. Barandiaran zinegotziak ahalduntzearen garrantzia azpimarratu zuen: "Jabetzeak norberaren bizitzan autonomia izatea bultzatzen du, bizitzan aukerak egiteko ahalmena izatea eta eraldaketa sozialean eta politikoan parte hartzea. Aldaketa pertsonal naiz kolektiboa ahalbidetzen duen prozesua da jabekuntzarena, emakumeen eta gizonen arteko harremanen benetako eraldaketa dakarrena".

Ikastaroetan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, hiru aukera jarri dituzte: martxoaren 11n hasita, izena emateko epea zabalik dago. Aukera zabala dago: Jabekuntza. andoain.eus gunearen bitartez edota Andoingo Udaleko ber-

dintasun lansailekin harremanetan jarrita (943 300 830 telefonoa edo berdintasuna@andoain.eus korreoa). Andoingo Udaleko Ataria zerbitzuan ere egin daiteke izen-ematea.

Jabekuntza Eskolaren udaberriko eskaintza

- Batukada feminista.
- Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak.
- Arte garaikidea eta feminismoa.
- Eskalada hastapena.
- Autodefentsa feminista.
- Filosofoak bidean. Bidaiatu eta filosofatu.
- Biodantza.
- Sendabelarrak ezagutzen.
- Ginekologia naturala eta maitasunezkoa.
- Mundu digitala eta ahalduntzea.
- Eskaladan sakontzen.

UDABERRIKO IKASTAROETAN IZENA EMATEKO AUKERA ZABALIK DAGO



ANDOINGO UDALA

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:

jabekuntza.andoain.eus

Andoingo Udaleko
Berdintasun lansaile.Tel. 943 300 830, luz. 380 - 385;
berdintasuna@andoain.eus.Andoingo Udaleko
ATARIA zerbitzua

Andoingo emakumeentzako jabekuntza eskola

2025 - UDABERRIKO IKASTAROK

Batukada feminista

Astelehenak. **Apirilak 7, maiatzak 19, ekainak 9.**
18:00-20:00, Leizaran Institutua.

Mundu digitala eta ahalduntzea

Asteazkenak. **Apirilak 9, 16, 23.**
17:00-19:00, KZgunea.

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak

Astearteak. **Maiatzak 6, 13, 20, 27, ekainak 3, 10.**
10:00-12:00, Arrate.

Arte garaikidea eta feminismoa

Ostegunak. **Apirilak 10, 24, maiatzak 8, 15, 22, 29.**
18:00-20:00, Arrate.

Eskalada

Eskalada hastapena

Maiatzak 23, ostirala. 17:00-20:30
Maiatzak 25, igandea. 09:30-13:30
Maiatzak 30, ostirala. 17:00-20:30
Maiatzak 31, larunbata. 09:30-13:30

Eskalada sakontzen

Oinarritzko esperientzia izatea beharrezkoa da
Ekainak 6, ostirala. 17:00-20:30
Ekainak 7, larunbata. 09:30-13:30
Ekainak 8, igandea. 09:30-13:30

Autodefentsa feminista

Larunbata. **Apirilak 26.** 09:30-14:30,
Allurralde kiroldegia.

Filosofoak bidean. Bidaiatu eta filosofatu

Astelehenak. **Apirilak 14, 28, maiatzak 12, 26, ekainak 9, 23.**
18:30-20:30, Urigain.

Biodantza

Astelehenak. **Maiatzak 5, 12, 19, 26, ekainak 2, 9.** 17:00-18:30, Urigain.

Sendabelarrak ezagutzen

Sendabelarrak 111 (aurreratua)

Sendabelarrak II ikastaroa eginda izan beharko duzu
Asteazkenak.
Maiatzak 7, 14, 21, 28.
18:00-20:00, Urigain.

Sendabelarrak 1111 (aurreratua)

Sendabelarrak II ikastaroa eginda izan beharko duzu
Asteazkenak.
Ekainak 4, 11, 18, 25.
18:00-20:00, Urigain.

Ginekologia naturala eta maitasunezkoa

Ostegunak.
Ekainak 5, 12, 19.
17:00-20:00, Urigain.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala

Asteartero.
16:30-18:30, Arrate.



Uma Ulaziak eskuartzean du Lisipe sailean argitara eman duen saiakera-liburua. TTAP

"Familia heterosexuala desmitifikatu beharra dago"

UMA ULAZIA SAIAKERAGILEA

2019ko eta 2023ko greba feministak sakon aztertu ditu Uma Ulaziak (Mutriku, 2001), ikasgaiak hartu eta borrokan jarraitzeko. Zaintzaren analisi mardula egiten du liburuan

Jon Ander Ubeda URNIETA

Xoxokako auzo elkartean egin dugu hitzordua, Urrietako Goiburu auzoan. Elkarrizketa, era berean, TTAP edizio digitalean argitaratuko da.

Harat honat zabilta Lisipe bilduman argitaratu duzun "Euskal Herriko greba feministak, diskurtsoaren analisisa feminismo materialistatik" saiakera dela eta. Liburua irakurrita, Euskal Herriko greba feministak aztergai dituzu, eta asmoa bada ekarpen bat egitea. Helburu hori du, ezta?

Bai; lanketa greba feminista orokorra baino hilabete batzuk lehenago hasi zen. Identifikatzen nuen bazegoela zaintzaren gainean esaten ari ginen diskurtso horiek ordenatzeko behar bat. Batzuetan, zaintza-sistemari

"2019KO GREBA GERRA KULTURALEAN SAKONTZEKO TRESNA BAT IZAN ZEN"

greba egiten geniolako; beste batzuetan, aldarrikatu egiten genuelako; beste batzuetan, eskubidetzat uler zedin nahi genuelako. Zer esan nahi genuen une bakoitzean? Hori identifikatzen ahalegindu naiz. Behar horretatik abiatuta, eta feminismitik egin dudana ibilbidea bollerismitik egin dudalako, militatzen dudana heinean ekarpen batzuen beharra nuen. Liburua hortik abiatzen da, militantzatik egindako identifikazio horietatik.

Liburua kokatzeko... Gradu Amaierako Lanaren ondoren iritsi zitzaizun liburua egiteko proposamena.

Hori da. Zientzia Politikoak ikasi ditut, eskuratu nituen tresna teoriko horiek militatzen nuen eremu horretan erabili ahal izateko. Politika ikasi dudalako politika egiteko. Talde barrurako ekarpena zena publikatzeko proposamena jaso nuen. Gradu Amaierako Lan hori liburura pasatzea izan da zeregina. Prozesu horretan, kontraste pila egin ditut militante kideekin; elkarrekin egin dugu liburu hau. Kanpoko proposamen hori gabe, akaso, lanketa hori ez litzateke liburu bilakatuko. Orain 23 urte ditut; idatzi nuenean, 22. Proposamenak sekulako dimentsioa hartzen du, hasiera batean egindakoa lan akademikoa baitzen. Baina ohartu naiz ez dudala horretara mugatu nahi, eta liburu horren aurrean kezkekin azaldu nahi dut, baina segurtasunez ere bai. Umiltasunez, baina ausardiaz ere bai.

Bi greba orokor sakon aztertu dituzu: Euskal Herrian izan diren azkeneko biak, 2019koa eta 2023koa; hirugarrenaren zantzurik baduzu?

Irakaspenak beti atera daitezke horrelako prozesuak izan eta gero. Ikusi ditugu arriskuak, eta horiei erantzuteko gaitasuna izan dugu. Adibidez, gizonen partekatu ditugu antolakuntza-eremuak eta hor ikusi dugu mekanismo batzuk sortu behar izan ditugula. Betoa, adibidez, botere gehiegikeria horiek blokeatu ahal izateko. Ikusi dugu egon direla edukien hustuketarako ahaleginak gobernuetatik, enpresetatik, eta horiek ekiditeko gure gakoak eta logikak zeintzuk diren izan behar dugu presente. Desmerkantilizazioa da horietako bat, desmilitarizazioa bestea. Horiek aplikatzen jakin dugu, eta hurrengo grebarako irakaspen horiek aplikatzea baliagarria izango da.

la edozeinek edo ia guztiek feministatzat daukate beren burua. Izan ordezkari politiko edo erakundeetako ordezkari; praktikan kontrako gauzak egiten dituztenek ere bai.

"2023AN PRESENTE DAGO ZAINZA ESKUBIDEA; LOTUTA ZEGOEN, NEGOZIATU NAHI IZANAREKIN"

Ironikoki, mundu guztia da feminista, gauza oro da zaintza, eta, beraz, horregatik defenditzen dudana da argitu behar dugula zaintza zeri deritzogun: zaintzaz aritzen garenean, zertaz ari gara? Feminismoaren ikuspegitik, gure printzipioak zeintzuk dira? Gure borroka-logikak zeintzuk dira?

Azter ditzagun mugarri izan ziren bi greba orokorrak: 2019ko Martxoaren 8a mugarria izan zen, jendetza atera zelako kalera. Hortik harago, bizpahiru ideiatan, nola laburbilduko zenuke hitzordu hura?

2019ko greba, bere horretan, izan zen gerra kulturean sakontzeko tresna bat. Horrekin zer esan nahi dut? Logika berriak planteatu, adiera berriekin hitz egin eta ortzi-muga berriak proposatu genituela. Eta hori gauzatu zen emakume, trans eta bollerek egindako greban. Aldi berean, erradikaltasunean sakontzen da, familiaren eremuan ere greba eginda. Lanaren kontzeptzioa zabaldu zen, ez soilik enplegura mugatuz. Ikusten dugu badaudela adieren logika berriak, eta horren funtzioa izan da gerra kultural batean sakontzea. Badakigu klase menderatzaileak behar duela mundu ikuskera orokortu eta zabala, patriarkala dena, irauin ahal izateko. Horren aurrean aldaketa kultural hori bilatu, bestelako hegemonia bat, bestelako pentsatzeko modu bat zabaldu behar dugula, bestelako sistema bat eraiki nahi badugu. 2019ko grebak funtzio hori betetzen zuen.

2023an, aktore berriak agertu ziren, beste argudio batzuekin; ez dakit transbertsalagoa den hitza.

Zaintza beste termino batzuetan agertu zen. 2019an, zaintzari greba egin geniola esan genezake, eta esaten genuen zaintza dela pobretzen gaituena. 2023an presente dago zaintza eskubidea. Hori badago lotuta, zuzenean, negoziatu nahi izanarekin. Publikazioaren aldeko neurriak modu zehatzagoan eta sakonagoan landu ziren.

Sindikatuaren parte-hartzea ere handiagoa izan zen 2023an.

Jauzia eman zen. 2019an, mundu feministak antolatu zuen greba, eta 2023koa transbertsalagoa izan zen. Greba feministatik greba orokorrera jauzi egin zen. Aliantzetan oinarritu zen, gehiengo sindikalarekin eta mugimendu sozialekin. Sortuko dira baldintzak grebaren arrakasta handiagoa izateko, eta,



ondorioz, negoziatzeko presio handiagoa lortuko da.

Liburuari aipamena eginez, patriarkatu neoliberalaren aroan sartuta, pribatizazioaren eta murrizketen ondorio zuzena familiaren indartzea da. Eta liburuaren tesietako bat da familia, instituzio bezala, apurru beharreko kontzeptu bat dela.

Aro neoliberallean, murrizketak areagotzen direnean, borroka aktibatu da Osakidetzan. Adibide batekin errazago ulertuko da. Ospitalean zazpi egunez egon behar baduzu baina murrizketak direla-eta bost bakarrik egoten bazara, beste bi egun horiek etxean emango dituzu. Horren ondorioz, emakume bat zu zaintzen izango duzu etxean. Familia instituzio gisa areagotzen da horrela, lan horiek familiaren gain geratzen direlako. Eta, beraz, emakumeek ordainsaririk gabe egiten dituzte lan horiek. Emakumeen pobretzea areagotu egiten du horrek, hain justu, eszedentziak hartzeak eta antzeko formulak indartzeak pobrezian sakontzen duelako. Eta horregatik, hain justu, hitz egiten dugu familia deuseztatzeko beharraz, badelako instituzio bat legitimatzen duena egotea pertsona batzuk, emakumeak direnak, doan lan egin behar dutenak.

Familia, zaintza, zaintza sistema... Aterabidea, liburuan, bollerismoan kokatzen duzu.

Familia deuseztatzeaz hitz egiten baldin badugu, behar dugu familia heterosexualaren desmitifikazio bat. Uste dut bizitza heterosexualaren edo familia heterosexualen desmitifikazio horretan beharrezkoa dela subjektu bollerismoaren lidergoa. Aldi berean, grebaren antolaketa prozesuan eta, bereziki, azkeneko greba honetan, ikusi dugu heterosexualitatea ez dela modu zentratean problematizatu. Eta ez dela bereziki presente egon transmaribibollo mugimenduen lidergoa mugimendu feministaren barruan. Uste dut asmatu behar dugula transmaribibollo mugimenduen lidergoa egon dadin mugimendu feministan; hain justu, behar dugulako erradikalitasunean sakontzeko, bizitza heterosexuala eta familia heterosexuala desmitifikatzeko.

Liburuak badu helburu pedagogikoa. Etengabe kontrastean daude bi kontzeptu: idealista eta materialista. Parez pare jartzen dira biak,



Uma Ulazia, Urnietako Xoxokako auzo elkartearen. TTAP

eta ariketa bera egiten da bi greba deialdiak analizatzeko garaian. Azaldu ezazu hori.

Hitz oso potoloak dirudite idealismoak eta materialismoak, baina ikusten dugu oso presente daudela egunerokotasunean eta, bereziki, feminismoaren borrokan. Laburbiltzearen, idealismoaren premisa bada emakumeak eta gizonak naturalki direla ezberdinak, naturalki direnez ezin dela hori aldatu eta eman behar zaiola balioa emakumeen ezberdintasun horri. Materialismotik, aldiz, esango dugu naturatik eratorritako ezberdintasun horiek erabiltzen dituztela inposatzeko. Zaintza-lanak erabiltzen dituztela inposatzeko, berezko ahultasun batean sakontzeko... Naturaren izenean blokeatu egiten dira eremu horiek guztiak, inposizio horiek ezingo direlako aldatu. Eta, beraz, hitz egiten dugu emakumeak eta gizonak bereizten dituen sexu klaseez. Horrek hauspotzen du gatazka, klaseen artean. Erradikalizatu egiten da borroka. Ez daudelako gizon onak eta eraso egiten dutenak, baizik eta gure aurkako biolentziak jarraitzen duelako eta hori kolektibo oso batek

"LOGIKA IDEALISTEN BIRSORTZEAK BALIO DIGU ERALDAKETAN SAKONTZEKO"

legitimatzeko duelako. Egoerak feminismoaren erradikalitasunean sakontzeko aukera ematen digu, eremu horiek guztiak politizatu eta borroka-eremu bihurtzeko. Horregatik defendatzen da borroka termino materialistetan.

Era berean, badut inpresioa norberaren ideiekin gatazkan aritzeak askatzailea dirudiela; ez da oztipoa gatazka, baizik eta zozter askatzailea.

Analisia autokritikatik planteatzen da. Autokritika positibotzat hartzen da. Idealismoa sozialki sustraituta dago eta guztiok erreproduzitzen ditugu logika idealisten birsortzeak balio digula eraldaketan sakontzeko.

Klase borrokaz ari zarenean, gizonen eta emakumeen arteko ari zara. Liburuan bada aipamen bat, eta irakurriko egingo dut: "Garrantzitsu deritzot feminismoa guztion onerako den diskurtsoarekiko zorrotzak izateari. Ezin gara mugimendu sozial bakarria izan gure borroka klase antagonikoarentzat aberasgarria dela dioena".

Langileok lortzen baldin baditugu garaipenak enpresaren arloan, inork ez du esango patronalarentzat hori positiboa denik. Feminismoarekin gertatzen da pedagogia-lan bat egin behar dugula gizona baretzeko pobretzea gaizki iruditzen zaiela lortu arte. Saltoa eman behar dugu klase borroka ulertzeko eta erradikalizatzeko. Izan ere, dirudienez, badaude borroka

nagusiak eta erradikalak izan beharkeak, eta beste batzuk bigarren mailakoak.

Zaintzara itzulita, hitzaren zentzu polisemikoan murgiltzen zara eta leihu bat zabalik uzten duzu. Hari-mutur bat solte esaldiarekin zer esan nahi duzu?

Lan horretan hasi nintzenean, bereziki kezkatzen ninduten zaintzak dituen adiera guztiak. Pankarta batean geundela, zaintza eta gero zer idatzi ez genekiela geratzen ginen. Liburuan adierak sailkatzeko lan bat egin dut. Lehenengo adiera da zaintza dela pobretzen gaituena eta emakume egiten gaituena bada lan horiek egin behar izatea. Konnotazio guztiz negatiboa luke zaintza-k. Bigarren adiera da eskubidea dela zaintza. Adiera hori erabili dugu sare publikoaren sendotze baterako. Bada eskubidea, eta, beraz, zaintza deitzen diogun lan horietatik badugula eskubidea emakumeok ere lan horietatik eratoritzen diren produktuak eta zerbitzuak jasotzeko. Badago beste adiera bat, hari-muturrarekin lotura duena, konnotazio erabat positiboa duena. Zaintza produktibitate kapitalistaren kontrako logika gisa ulertuta, kapitalismo

"LAN HORRETAN HASI NINTZENEAN, KEZKATZEN NINDUTEN ZAINZAK DITUEN ADIERA GUZTIAK"

patriarkalaren premisa diren isolamendu eta individualismoaren kontrako logika bezala, ikuspegi komunitarioarekin. Militatzen jarraitzen dugu, logika horiek gure militantzian presente daudelako. Adiera horiek guztiak laburbilduz, lehen adiera horretan jasotze dena abolitu egin behar da. Bigarrenean, birbanatu egin behar da. Eta hirugarren kasuan, aldarrikatu. Esan nahi dudana da konplikatu egiten zaigula borroka, termino batek hainbeste adiera baldin baditu, hain konnotazio desberdinekin. Hirugarren konnotazio positibo hori baliatzen ari dira, bereziki, enpresak eta gobernuak. Erromantizatu egiten dutelako ordaindu gabeko zaintza, gatazka ekiditearekin lotzen dutelako zaintza. Nire proposamena da zaintzaren konnotazio positibo hori ezabatzea, eta lehen eta bigarren adierak tartekatzea. Hari-mutur bat solte utzi dut, hirugarren adiera positibo hori, agian, bestelako termino batekin definitzeko. Behar dugulako presente izatea, baina, agian, bestelako hitz batzuekin.

Feminismoaren barruan hainbat aldaera eta korrante daude. Euskal Herrian barrena zabalza liburuak aurkezten. Zer iritsi zaizu irakurleengandik?

Bollerismoa, zaintza, estatua... Eztabaida asko eta borrokarako bide berriak irekitzen ditu, zalantza berriak sortzen ditu. Ikuspegi dibulgatzailea duela, hori da jaso dudana erantzun positiboa. Ematen digu aukera eguneroko borroketan izan ditzakegun zalantzei helduleku bat eskaintzeko. Hori zen nire helburua, eta *feedback* norabide horretan jaso dut. Horrekin pozik nago.

Esku artean dudana zer da: lan-tresna? Artefaktu bat? Bozgorailu bat?

Artefaktu bat dela esatea handinahia iruditzen zait. Lan-tresna bat izateko jaio da, eta horretarako baliagarri izatea nahiko nuke. Militantziaz sortzen delako, borroka hauspotu ditzan, borrokan jarraitu dezagun. Jasotzen duelako mugimendu feministatik metatu dugun jakintza guztia. Helburua bada pista batzuk ematea, helduleku gehiago eskaintzea egiten ari garen horretan jarrai dezagun. Horretarako baliagarri izatea nahiko nuke.

"Gure azken lan egunak dira Iturri taberna-jatetxean"

MARI JOSE MARTIN ITURRI TABERNA-JATETXEA, BAZKARDO

Hamabost urteko ibilbidea egin ondoren, bere ateak itxiko ditu hilaren amaieran Bazkardoko Iturri taberna-jatetxeak.

Xabier Lasa ANDOAIN

Bazkardo auzoan dagoen Iturri taberna-jatetxera azken hamabost urtetan sartu izan den bezeroak Mari Jose Martinen irribarre eta solasaldi gozoarekin egin izan du topo lehenbizi, eta lantalde guztiaren arreta atseginarekin ondoren. Martxoaren bukaeran ixtera doaz, jubilazioa hartuta.

Zeintzuk egiten duzue lan Iturri, eta zenbat urte daramazue negozioarekin?

Orain hamabost bat urte hartu genuen negozioa Jose Manuel Monteiro senarrak eta biok. Portugaldarra bera, eta Oñatikoa ni. Urtetan, biok aritu gara sukaldian; aparte, neu arduratzen naiz, barran, jendaurreko lanez. Otorduak zerbitzatzen, berriz, Marta Tejero aritzen da. Orain asko ez dela arte, Tamara eta Erika alabak ere zerbitzari gisa aritu izan dira jatetxean. Hain zuzen, Tamararen alaba da Marta.

Taberna apenas ikusi da itxita sekula...

Andoainera etorri ginenean, eta Bazkardon tabernan lanean hastera gindoazela, hara zer esaten zidan jendeak: "Auzo horretan, tira, astegunetan nahikoa duzue; asteburuak jai". Bada, ikusten duzu, egunero-egunero! Goizeko 07:00etan irekitzen ditugu ateak, eta gaueko 23:00ak arte, bai! Asteburuetan, zerbait gehiago luzatzen zaigu ixteko



Mari Jose Martin. AIURRI

ordutegia. Medikutara edo ile-apaindegira ez bada, ez naiz ateratzen tabernatik! Bertako altzairu bat gehiago naizela esan daiteke (barreak). Senarra ateratzen da kalera, era guztietako enkarguak egitera.

"GOGOKO DUT OFIZIOA, GOGOKO BEZEROAK ETA GOGOKO BAZKARDO AUZOA"

Ez al zaizu nekagarria egiten egunean hainbeste ordu sartuta egotea?

Inondik ere ez! Tabernari-tabernaria naiz, gogoko dut ofizioa, gogoko, bezeroak, eta, gogoko, Bazkardo auzoa. Zer nahi duzu esatea... Saltsera samarra naiz, berriketa zalea, eta ez dut alkoholik edan behar jendearekin hitz-aspertu gozoetan jarduteko. Jendeak hitz egiteko behrra du, bere gauzak kontatu... eta entzule ona naizela esango nuke, diskretua. Zer esango dizut, nik halako izaera edukitzea estima-

tzen dute bezeroek. Barraren albo batean bionbo bat jarri eta psikologoaren kontsulta ipintzeko esaten dit jendeak erdi txantxetan, baina ni tabernari peto-petoa naiz, eta halaxe izaten segi nahi dut (barreak).

Iturriren sukaldeak badauka fama, etxean bezala sukaldatzen delako.

Egia esan, gure kroketek eta haragi-boleak badaukate estimazioa, eta ez dira gutxi paella eta oilasko-erreak eskatzen dizkigutenak eramateko.

Bestalde, 60-70 lagunentzako tokiak badaugu jangelan, eta etortzen diren bezero askok apatzen didate "Iturrira etortzea, etxean egotea bezala da", eta badakit zinez esaten dutela, ez kunplizteagatik. Badakite harrera eta tratu atsegina topatuko dutela, konfiantzazkoa, eta batez ere, etxe-etxeko jaki goxoak jarriko dizkiegula mahai gainean. Facebookeko kontuan, nekez topatuko duzu komentario ezkorrik. Gainera, jendeak eskertzen du asteko zazpi egunetan menua ipintzea: astegunetan, 14 eurotan eta 17 eurotan, asteburuetan.

Zein motatako bezeroak daukazue?

Nahiko bezero finkoak izaten ditugu. Badira ia egunero edo astero etortzen direnak zerbait hartzera edo bazkaldu-afaltzera; horien artean, inguruko langile ugari. Bestalde, ahoz-ahokoak asko funtzionatu ohi du gurekin, eta Bazkardon autoa aparkatzeko toki askorik ez topatu arren, jende ugari etortzen zaigu Sorabillatik, Goikoplazatik, Kaletxikitik, Zumea eta inguruko auzoetatik...

15 urte daramazu Andoainen. Ohar-tuko zinen andoaindar askorentzat nahiko ezezagunak direla Bazkardo auzoa eta Ama Kandida etorbidea.

Arrazoi duzu! Egia da Andoainen nahiko baztertuta eta marjinatuta dagoela inguru hori dena. Ez digute jaramon handirik egin, baina bost axola guri, independenteak gara Andoaindik! Bizitza honetan ez dago zure bizitokia maitate izatea eta bertakoa sentitzea baino gauza ederragorik, eta alde horretatik, harro nago bazkardotarra izateagatik.

"BEZERO UGARI ETORTZEN ZAIGU SORABILLATIK, GOIKOPLAZATIK, KALETXIKITIK..."

Obrez inguratuta bizi zarete azken urteetan.

Andoni alkateak, gure sakrifizioa ulertzen duela esatearekin batera, pazientzia eskatzen digu, mesedez; auzoa bizigarriagoa eta politagoa geratuko omen da etorkizunean, eta denbora kontua dela. Ez dut esango arrazoirik ez daukanik, baina, bien bitartean, ez dira gutxi bizilagunok jasaten ari garen buru-hausteak! Behin alkateari erantzun nion autoaren depositua lau aldiz bete behar izan dugula oso denbora gutxian, iraganean oso noizean behin baino egiten ez genuen bezala. Izan ere, Arin etxeetan bizi gara, eta tabernara etortzeko autoz, Urrietako mugaraino joan behar dugu lehenbizi, zuzenean ezin dugulako.

Etorkizunean, nola dakusazu auzoa?

Orain baino ederragoa geratuko da! Ikusteko dago gazte jendea eta etortzen denean bizitzera, zer nolako kale-giroa pizten den. Pentsatzekoa da komertzio berriak irekiko dituztela, eta baita ostalaritza sektorekoak.

Dena den, auzo osoko obrekin amaitzerako oraindik ere urte batzuk igaroko direla aurreikusita dago, eta jakina, gure tabernako martxarekin behintzat ezin ikusi ahal izango dugu hori guztia.

Erretiroa hartzeko atarian ala?

Gure azken egunak dira Iturri taberna-jatetxean. Biok berriki hartu dugun erabakia da: kito egingo du gure jarduerak Iturri, datozen egunetan. Senarrak nahikoa kotizatuta dauka jubilatzeo moduan. Nik, berriz, 65 urte beteko ditut maiatzaren 29an; ezin izan dut askorik kotizatu urtetan ostalaritzan zerbitzari gisa jardun dudanez, eta hortaz, lege berriekin, 67 urtera arte segi beharko nuke. Baina, zer arrai! Huskeria kobratzeko, hobe oraintxe hartu erretiroa! Ixteko albiste poliki-poliki zabaltzen ari da bezeroen eta auzotarren artean, eta makina batek agertu digute pena! Baina, azken batean, ulerkor azaldu zaigu jendea, atsedena merezita daukagula esanda. **Ospakizun berezirik egin behar al duzue, agurrarekin batera?**

Jakina, zintzo-zintzo izan ditugun bezeroei esker ona adierazi nahi genieke, batik bat. Horretarako, jai berezitzoren bat prestatzekoan gabilta martxoaren 30erako. Hurrengo egunean, berriz, azken egunez eskainiko ditugu otorduak.

Zentral-eolikora, Besabin barrena

Erreka zentral eolikoa eraikitzeke lanek aurrera eginez gero, Urumeako Mendiak Bizirik taldeak jakinarazi duenez, sarbidea Besabin izango luke. Repsol da sustatzailea eta 100 Mw ekoizteko 15 aerosorgailu jartzea aurreikusten du

Erredakzioa URNIETA

Aztergai du Urumeako Mendiak Bizirik elkarteak Repsolek abian jarri nahi duena: Erreka zentral eolikoa. Antza, beren ondorioen arabera, zentral eolikoa eraikitzeke obrek Besabin izango luke sarbidea: "Sarbidea Besabitik (Urnieta) abiatzen da, eta, guztira, 27,5 kilometroko pista proiektatzen da". Bidearen guxtieneko zabalera sei metrokoa izango litzatekeela ere gaineratu du elkarteak.

Aerosorgailuentzat azpiegiturak

Aerosorgailuek ekoiztuko lukeen energia jasotzeko behar dituzten azpiestazioak eta garraiatzeko behar diren dorreak ere aztertu ditu kolektiboak. Horrela, adierazi du 15 aerosorgailuentzat behar den azpiestazio jasotzailea San Migel Soron izeneko mendi-lepoan (647 m.) eraikitzea aurreikusten duela proiektuak; 49x37 metroko lursaila behar luke azpiestazio



Egitasmoaren aurkako pankarta, Besabin. AIURRI

horrek. Horrenbestez, kolektiboak ohartarazi du Erreka proiektuak Hernani, Ereñotzu, Elduain, Berastegi, Arano eta Goizuetako lursailak hartzen dituen arren, Urnieta eta Oiarzungo lursailetan ere izango lukeela eragina, kontuan har-

tuta goian aipatutakoa, hots, aerosorgailuek premiazkoa duten azpiegitura (sarbideak edota aerosorgailuek ekoiztuko lukeen energia jasotzeko behar diren azpiestazioak, eta aldi berean, garraiatzeko behar diren dorreak).



"Vidas irrenovables" dokumentalaren fotograma. VIDAS IRREVOCABLES

Egun osoko jaia, Aranon, Iarunbat honetan

Urumeako Mendiak Bizirik elkarteak ekitaldiz beteriko egun osoko jaia antolatu du Arano herrian Iarunbatean, martxoaren 15ean. Urumea bailara horretako mendi gainetan proiektatuta dauden bi zentral eolikoek eragingo litzaketan kalte ekologikoen gainean sentsibilizazio kanpainaren baitan antolatu dute jaia.

Egitaraua:

- 11:00 "Vidas irrenovables" dokumentala. Ondoren, solasaldia Fco. Javier Vaquero egilearekin.
- 12:30 Mendi txangoa aerosorgailuak proiektatu dituzten natureremuetara.
- 14:30 Burningo bordan, pintxoak eta salda. Joseba Tapiak, Jon Marik eta Izer eta Alabier trikitilariak alaituta.
- 16:30 Herrira itzulera kalejiran.
- 18:00 Aitor Mendiluze eta Julio Soto bertsolarien saioa (balkoitik balkoira, herriko plazan).

ZOZKETA

ELIKAGAIAK



Aiurriko
harpidedun
izateak saria
dakur

**Zozketa bidez,
AiurriKIDE batek
ERRIGORAko
saria
eskuratuko du.**

Okm:
batzen
gaituen
distantzia

Egin zaituz AiurriKIDE

**AIURRI
KIDE**

Parte hartzeko modua:

Idatzi "**ERRIGORA**", zure izen-abizenak eta bidali:

* **Whatsappa:** 619 163 537

* **E-posta:** diseinua@aiurri.eus

ERRIGORA

"Beste modura, denona da onura"

**Eskaerak: errigora.eus.
Epealdia: martxoak 10-26.**

"Beste modura, denona da onura" izenburupean abiatu da Errigoraren udaberriko kanpaina. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztiko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak erosi ahal izango da.

Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztiko produktuak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan eskuratzeko aukera izango da martxoaren 26ra arte.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolako emakumezkoen kirol zuzendaria zara. Zer moduzkoa izaten ari da esperientzia?

Oso ona, egia esan. Rol horretan, nire lehenengo esperientzia da eta, hein batean, ni ere ikasten nabil haiekin batera. Egia da ezaguna zaidala mundu hau, nire kirol ibilbideari lotuta daude Euskal Herriko egutegia eta Espainiako Kopa. Tropelean bizi izan dut hori guztia eta orain beste ikuspegi batetik egin behar dut lan. Oso ezberdina baita tropelean edo atzean, ibilgailu batean, zuzendari lanetan aritzea. Nire esperientzia haien izateari baliagarria izatea nahi dut eta lasterketaren hainbat unetan lagungarria da, lasterketak eta errepideak ezagunak zaizkidalako. Lasterketaren arabera, ditugun txirrindulariak aintzat hartuta, estrategia bat edo beste praktikan jartzea da nire lana.

Zer aurkitu duzu Andoainean?

Talde txiki bat, baina, aldi berean, gauzak ondo egiteko gogoz dagoena.

Kluba kanpotik ezagutzen zenuen eta orain barruan zaude. Zer da gehien harritu zaituena?

Harrera ona egin zidaten eta berehala integratu naiz. Erraztasun handiak eman dizkirate taldeko arduradunek. Eurek emandako ildoari jarraipena eman diot eta, txirrindulariei dagokionez, oso azkar bereganatzen dituzte esanak eta horiek bururaino eramaten ahalegintzen dira. Oso gustura nago kirol-zuzendari lanetan.

Talde txikia da eta, era berean, oso maila ona ematen ari da.

Bai, bai. Arrazoi golegile haiei. Kanpotik sailkapenei betidanik erreparatu diet eta banekien Andoaingoek maila txukuna zutela. Iaz, sorpresa hartu nuen uste baino maila politagoa dutelako.

Eta, gainera, hobetzeko aukera handia dute. Kirol zuzendari baten izateko esperientzia interesgarria da, ezta?

Kadete eta jubenil mailako gazteak dira eta oraindik asko dute ikasteko. Esandakoak berehala barneratzen dituzte. Oso polita da, bestalde, nire baitan sortzen den sentsazioa, haien ikasketaren parte sentitzen bainaiz. Txirrindulari izateko prozesuaren parte bilakatzen gara kirol zuzendariak.

"Nire esperientzia txirrindularientzat baliagarria izatea nahi dut"

ANA USABIAGA ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLAKO NESKEN KIROL-ZUZENDARIA Goierritarrak ibilbide oparoa egin zuen txirrindularitzan, Euskal Herrian eta nazioartean lehiatuz. Kirol-zuzendari lanetan, beste ikuspegi batetik bizi du ofizioa



Ana Usabiaga. AIURRI

Espainiako Kopa egingo duzue. Ordu asko egingo dituzue elkarrekin.

Aurten, kadete mailako bi lasterkariak soilik gertuko lasterketetan ariko dira. Nojan izan ziren eta, datorren astean, Beasainen ariko dira. Ekainean, berriz, Lizarrakoan parte hartuko dute. Kopako partaidetza modu mailakatu egingo dugu gazteenekin. Junior mailakoekin, aldiz, martxoaren amaieran Galizian eta Murtzian lasterketa-sorta egingo dugu. Iaz, Kopako sailkapen orokorra irabazi genuen Irati Arangurenekin. Kontziente gara errepikatzea zaila dela, baina saiatuko gara.

Taldea ere txukun aritzeko aukera duzue.

Bai, baina ez da gure helburuetakoa. Ez gara hori bilatzen ari. Lasterketa bakoitzeko banakako sailkapenari emango diogu garrantzi handiagoa. Baina, tira, errepideak egoera horretan jartzen bagaitu, egoera iritsiko balitz, taldekako sailkapenarekin ere saiatuko ginatke. Baina, esan bezala, ez da denboraldi hasieran gure buruari jarritako helburu bat.

Murtzia eta Galizia, kilometro asko tartean. Zentzuzkoak dira egingo duzuen sakrifizioa.

Prestakuntza aldetik ez dago aldaketa handirik, distantzia eta zailtasun beretsuko lasterketak direlako. Baina egia da asteburu osoa kanpoan emango dugula. Galiziara, adibidez, ostiral goizean abiatuko gara eta txirrindulariek eskolako eguna galduko dute. Nik, berriz, lan egun osoa. Baina badakizu esarak zer dioen: gogoko tokian, aladaparik ez.

Hamabost urte atzera txirrindulari aritu zinen pistan eta errepidean. Asko aldatu al da txirrindularitza denbora honetan guztian?

Aldatu baino gehiago esango nuke lasterkari gehiago dabilela lehen eta hori zorioneko albiste da. Lehen, goi-goian zebiltzen txirrindulari talde txiki bat eta gainerakoekin zegoen aldea oso handia zen. Tarteko maila hori handitu egin da eta hori oso ona da txirrindularitzaarentzat. Horrez gain, lehen, nesken artean ez zen ohiko prestataile bat izatea, potentziometroa erabiltzea... Hori, egun, neskek oso barneratuta dute. Txirrindulari gehiago ditugu hobeto prestatuta eta, ondorioz, maila igo egin da.

Taldeko partaideak, zuzendariaren ahotan



ANDOAINGO

Irati Aranguren

"Eskalatzailea, lasterketaren irakurketa egiten azkarra da. Mugimenduak ikusteko dohain berezia du, badaki zer egin behar duen une bakoitzean. Uneoro nor duen aurkari zuzena antzematen badaki. Ez zaio

ezer esan behar. Abantaila handia du, indar gutxiago xahutzen duelako".

Izaro Etxarri

"Orain arte pistan nabarmendu da gehiago, baina errepidean txukun ari da. Esprinter

lanetan ondo moldatzen da. Iratiren eta Izaroren ezaugarriekin, lasterkei ekiteko oso talde orekatua dugu. Esprinter nola ekin, zein kokapen izan behar duen... Hori ikasten ari da urteotan. Bide polita darama eta bidean gehiago ikasiko du.

Intza del Teso

"Beldurrez aritzen da eta buruarekiko konfiantza gehiago behar du zeren eta lasterketak bera uste duena baino toki hobean jartzen du. Berak uste duena baino askoz txirindulari hobea delako. Iaz, konfiantza gutxiarekin ekin zion denboraldiari eta errepideak erakutsi zion Izarorekin eta Iratirekin bat gehiago dela".


Nahia Garcia



"Aurten hasi du denboraldia. Ziklo-krolean eman du udazken-negua eta orain atseden hartzen ari da. Errepidean ez du oraindik debuta egin. Nahiaren helburua da bere buruarengan gehiago sinestea, batez ere, maldan gorako lasterketetan. Gaitasuna badu eta horren froga eman izan du kadete maila lasterketetan".

Maddi Ormazabal eta Oliaia Gayoso

"Kadete mailako bi lasterketa besterik ez ditugu egin eta, egia da, oraindik ez dugula eurak eta neuk gehiegi elkar ezagutzen. Bi txirindularien helburua ez da txikia, eurentzat den-dena berria baita. Izan ere, lehen aldiz, benetako tropelean ariko dira lehian. Lasterketak amaitu, dagoen maila aztertu eta bizitako esperientziatik ikasi: hori dute, aurten, helburu nagusi".

Infomaitemindu ➔

Bidali  **ALTA 747 444 777** zenbakira eta jaso Gipuzkoa eta Foru Aldundiari buruzko informazio garrantzitsuena.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

BERTSOLARITZA

URNIETA Bertso-afaria

Eli Pagola eta Unai Gaztelumendi, Aiurrik eta Gaztetxeak antolaturiko saioan. Txartelak salgai Urrietako Kantoin eta Matxon eta Aiurriin.

Martxoak 21, ostirala.
Altuna Sagardotegia.

HITZALDIA

ANDOAIN Eolikoak aztergai

Hizlariak: Eskeltzu Bizirik eta Urumeako Mendiak Bizirik.

Martxoak 13, osteguna.
19:00, Euskalduna MT.

ANTZERKIA

ANDOAIN Evaren alabak

Oharra: "Ring" bertan behera geratu da.

Martxoak 14, ostirala.

ANDOAIN Vaiven konpainia

"El patio de las moreras".

Martxoak 14, ostirala.
19:30, Bastero. 6 euro.

URNIETA Barrejerka

"Nahastumbury": Umorezko esketxak eta antzerkiak uztartzen dituen ordubeteko emanaldia.

Martxoak 23, igandea.
19:00, Sarobe. 7 euro.

BARRIKOTEA

ANDOAIN Bazkaria

Bertako eta Extremadurako jakiez osaturikoa: Extremadurako hestekien dastaketa, txorizoa sagardoarekin, kroketak, txuleta eta Extremadurako gozoen dastaketa, sagardoa, ardoa eta kafea. Helduen menua, 30 euro. Haurrena, 10.

Martxoak 15, larunbata.

14:30, Hogar Extremeño elkarte.

TOPAKETA

ANDOAIN Pala topaketa

Buruntzaldeko emakumeena.
17:00-20:00 Pala topaketa.

18:30 Palista aitzindariari aitortza.
Martxoak 15, larunbata.



Ipar Martxa Andoainean, artxiboko irudian. AIURRI

ANDOAIN Ipar Martxa tailerra

Hiru erduko tailerra antolatu dute, larunbat honetarako. Doakoa da eta bastoiak eskuragarri egongo dira esku hutsik doanarentzat. Izena emateko telefonoz deitu behar da 943 300 147 telefono-zenbakira.

Martxoak 15, larunbata. 10:00-13:00, Allurralde kirolegia.



Captain Marvel, Game Of Thrones, Avengers... film ezagunetako doinuak joko dituzte.

URNIETA Zinema munduko doinuak, zuzenean

Hernaniko Gazte Bandak eta Lourdes Iriondo Musika Eskolako hainbat ikasleek pelikuletako musika bandetan oinarritutako kontzertu berezia emango dute. Izaskun Oconen zuzendaritzapean ariko dira.

Martxoak 15, larunbata. 18:30, Sarobe. Doan.

IKUSKIZUNA

URNIETA Haur ikuskizuna

Gari, mutiko txoro bat, lagunekin haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Mariren haizuloan sartu eta harri magiko bat aurkituko du.

Martxoak 16, igandea.
17:30, Sarobe.

TAILERRA

URNIETA Eskien mantentzea

Eskien mantentze-ikastaroa antolatu du Zanpatuz mendi-elkarteak: Mikel Goñik emango du ikastaroa.

Martxoak 18, asteartea.
18:00, Lekaio.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


El secreto del orfebre

Martxoak 15, larunbata. 19:30.
Martxoak 16, igandea. 19:30.
Martxoak 17, astel. 17:00, 19:30.

Flow, un mundo que salvar

Larunbata eta igandea. 17:00.

Laburbira: Euskarazko film laburren zirkuitua
Martxoak 20, osteguna. 19:00.



"Pentsatzen dut" film laburraren fotograma. KARMELE MITXELENA

Euskarazko film laburrak, Bastero Kulturgunean ikusgai

Laburbira, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria, Andoainera iritsiko da hilaren 20an

Erredakzioa ANDOAIN

Bi helburu nagusi ditu Laburbirak: euskal zinemagintza hauspotzea batetik, zinemagileei beraien lanak erakusteko aukera emanaz, eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea, bestetik. Andoaingo saioa datorren martxoaren 20an izango da, Bastero Kulturgunean, 19:00tan hasita.

Andoaingo Udalak eta Taupak antolatu dute emanaldia.

Zortzi lan ikusgai

- Prosopagnosia (Ekain Martinez).
- Plazer bat (Sonia Estevez).
- Betiko gaua (Eneko Sagardoy).
- Europa (Ekain Irigoien).
- Pentsatzen dut (Karmele Mitxelena).
- Hor konpon (Jone Arriola).
- Goodbay Kepler (Nerea Ayala, Patricia Fañanas, David Modroño, Iraia Yarto).
- Utlandsk (Alba Lozano).





Ablitaseko olio. ERRIGORA

Martxan da Errigoraren kanpaina berria

"Beste modura, denona da onura" izenburupean abiatu da Errigoraren udaberriko kanpaina

Erredakzioa ANDOAIN

Errigoraren "Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpaina martxan da. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekotzitako produktuak euskaraz etiketatuta eta ekotzlearen jatorrizko prezioan eskuratzeko aukera izango da, martxoaren 26ra arte.

Erosketa egiteko modua argitaratu eman du Errigorak. Hala, olio bost litroko bidioietan eskuratu ahal da, kontserbak hamabi ontziko sortetan eta abar. Ordainketari dagokionez, Errigoratik jakinarazi dutenez, "online eginez gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izango duzu. Bestela, dena batera ordain dezakezu, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan".

Errigoraren udaberriko kanpaina

- Eskaintza: ardo bereziak eta gorenak, dilistak, arroza, zainzuriak, orburuak, barazkiak, babarrunak, zainzuriak, piperrak, kardua, tomateak, potxak, menestra, arbendolak, pasta, oliba-olioa.
- Eskerak egiteko modua: errigora.eus.
- Eskerak egiteko azken eguna: martxoak 26.
- Informazio gehiago: errigora.eus.



Oihana Sanz eta Irati Velasco, Valttierrako Duatloian. ZUMEATARRA

Andoaingo Lehen Duatloia, larunbat arratsaldean

Sprint distantziako duatloian federatuek parte hartuko dute baina kirolari guztiei zabalik dago

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Lehen Duatloia bertan da. Zumeatarra Triatloi Taldetik sortu zen ideia, Koldo Velasco probaren zuzendari teknikoak Aiurriri aitortu zionez: "Andoain antolatzeko pausua eman genuen eta, nagusiki, bi irizpide jarraitu ditugu: lehena, ikusleak bertatik bertara izan asmoz, probaren zati handia Andoain barruan egitea; bigarrena, hurbilduko diren partaideentzat ibilbide erakargarria egokitzea. Bi irizpide horiek oinarri aritu gara lanean, azken hilabeteetan.

Duatloia, hiru zatitan

- Lehena: 1,4 KM-ko zirkuituari 3 itzuli emango zaizkio, herrigunean bertan.
- Bigarrena: 10KM-ko bi itzuli osatu beharko dituzte. Otietarantz. 430 metroko desnibel metatua duen ibilbidea izango da (itzuli bakoitzak 215m). Aldaparen pendintza %11koa da.
- Hirugarrena: Azken proba, osora, 2,5 KM-koa da.

Ordutegia

- 16:00 Gizonezkoen irteera.
- 16:05 Emakumezkoen irteera.
- 18:10 Sari-banaketa ekitaldia.



Hurria-Sahararen emanaldia: Bertso-sorta Aiurri.eus gunean

BIDEOAK ATALEAN IKUSGAI

www.aiurri.eus

Gazte Festak antolatze bileran, martxoaren 19an

Maiatzaren amaiera aldean izan ohi dira Gazte Festak eta, jada, egitaraua osatzen hasteko deialdia egin du Jai Batzordeak. Bileran izango da martxoaren 19an, 18:30ean, kiroldegiko box-etan: "Proposamenak edo ekintzak bilerara ahalik eta landuen eramatea eskatzen da". Horrez gain, Inauterien balorazioa ere egingo da.

Andoaingo Ibilaldia: Boluntario bila ari da Euskalduna MT

Mendi Martxaren 51. edizioa izango da, apirilaren 6an, hiru aukerekin: ibilaldia luzea (43,5 Km), ibilaldia motza (21 Km) eta ibilaldi familiarra (10 Km). Laguntzaile premian dira. Interes duenak harremanetan jarri behat du klubarekin. Telefonoz (688 684 028 / 943 592 232), edo Kale Nagusiko egoitzara hurbilduz.

Urnieta Artola Harategiak liderra jasoko du etxean

Don Pedro Hondarribia Bidasoa taldea Lurraldeko 1. mailako liderra da eta asteburu honetan Urnietako kantxan ariko da. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da partida. Urnietarrek bolada bikaina daramate: Bost partida irabazi dituzte, jarraian. Horri esker, sailkapenaren 3. postuan daude. Liga amaitzeko 4 partiden faltan, play-offean sar daitezke.

Gorengo Mailako Euskalduna taldeak Ubitarten du partida

Euskaldunak, igoerarekin amestu nahi badu, irabazi beharra dauka. Izan ere, Roteta eta Orio aurkari zuzenak ez daude baratzeko prest. Larunbat honetan, Ubitarte zelaian, Mariño taldearen aurka ariko da. 18:00tan hasiko da partida. Astigarragan galdu zuen aurreko asteburuan, aurreko bi irteeratako markagailua errepikatuz: 1-0.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Alaia Fernandez Saez
Gure etxeko emakume txikia handitzen ari da! 13 urte iada! Asko disfrutatu dezazula zure egunaz eta oso zoriontsu izan zaitezela mailla! Izugarri maite zaitugu! Etxekoak



ANDOAIN

Irati Nuñez Larrea
Gure Iratik, 16 urte. Egun ederra pasa maitea.

MERKATU TXIKIA

TXIMINIAREN

GARBIKETA
Su baju eta ekonomikoen garbiketara. Julen: 610 628 848

Emakumeentzako txirrinda. 60 euro. Harremanetarako: Pili: 610 953 258.

ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorra badira hobeto! 650 341 108.

Bi ohe artikulatu salgai, koltxo eta somierrak barne. Berri-berriak. 664 462 517.

SALMENTAK

Edariak hozteko hozkailu txikia. Neurriak: zabalera 0,48, sakonera 0,44 eta altuera 0,63. Prezioa 55 euro. Pili: 610 953 258.

MERKATU TXIKIAN

IRAGARRI NAHI DUZU?
Bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppe: 619 163 537

Errigorako pintxo-lehiaketa, Zilegi Eskolaren eskutik

Ostegun honetan Errigorako pintxo-lehiaketa antolatu dute, arratsaldeko 18:00tan hasita, Urnietako euskaltegian. Era berean, Errigoraren kanpaina berria martxan da. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekotzitako oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, leka-leak eta ardo loteak erosi ahal izango da.

"Tresna eraginkorra da Euskaraldia"

GOIATZ URKIJIO EUSKARALDIAREN KOORDINATZAILEA

"Elkar mugituz egingo dugu lelopean", maiatzaren 15etik 25era egingo da laugarren Euskaraldia. Norbanakoen izen-ematea asteburu honetan abiatuko da

Larraitz Zeberio GIOENA / TOKIKOM
Esan duzue oraingo Euskaraldiak aurreko edizioa gaindituko duela; funtsean zer aldatuko da?

Esango nuke Euskaraldia berri-tuta datorrela. Aurretik hiru edizio egin ditugu eta hirugarrenaren ostean ariketaren hobetzekoak eta mantentzekoak identifikatzeko gogoeta-prozesua jarri genuen abian. Euskaraldiaren bueltan aritutako hainbat eragile eta norbanakorekin egon ginen. Esan zigutena izan zen Euskaraldia eraginkorra dela, eta esentzia mantentzeko, baina berrikuntzak txertatzeko.

Irakurri dugu ilusioa berpizteko datorrela laugarren Euskaraldia.

Bai. Lehenengo Euskaraldiak espektatiba guztiak bete zituen. Ez genekien zer zetorren, eta etorri zena oso handia izan zen. Bigarren edizioa pandemia bete-betean egin genuen, eta ondo baloratu zen, garai gogor haietan euskara lehen lerroan jartzeko aukera izan genuelako. Baina hirugarren edizioan neke sentazioa jaso genuen, eta hortik aldaketa baten beharra.

Egindako ikerketek frogatutzat ematen dute hizkuntza-ohiturak aldatzeko Euskaraldiak duen eraginkortasuna, ezta?

Ikerketek argi esaten dute ariketa bitartean parte-hartzaileen bi herenak hizkuntza ohiturak aldatu egiten dituela eta euskara gehiago egiten duela. Horren ariketa masiboan, datu esanguratsua da. Gerora ere, arrastoa uzten du Euskaraldiak eta helburua bete-betean betetzen du. Lana dakar Euskaraldiak, baina euskararen erabilera urratsak egiteko dugun tresnarik eraginkorrena eta masiboena da.

Zenbat lagunek hartu dute parte aurreko edizioetan?

Aurreko hiru edizioetan 320.000 parte-hartzailek baino gehiagok hartu dugu parte. Munduan ez dago halako beste ariketa sozial masiborik. Euskaraldia ez da



Goiatz Urkijo da Euskaraldiaren koordinatzaile nagusia. GIOENA

euskararen aldeko ez festa bat ez kanpaina huts bat. Ariketa bat da, erronkan jartzeko gaitu, lekutik mugitzen gaitu eta esfortzu bat ere eskatzen digu. Horregatik, datua oso ona da, sekulakoa.

Helburu berrietako bat da ariketatik mugimendura pasatzea.

Euskaraldiaren oinarria hamaka eguneko ariketa da, baina nahi dugu aurreko eta osteko lan guztiari balioa ematea. Maiatzeko ariketara heltzeko herrietan hasita daude mugitzen, eta ostean ere aprobeztatu nahi dugu mugimendu hori. Esan ohi dugu hamabigarren eguna dela garrantzitsua.

Horiek esanda, nola berrabiaraziko duzue egitasmoa?

Hasteko eta behin, irudi erabat berria du Euskaraldiak. Bestetik, garai aldaketa ere badakar laugarren Euskaraldiak; izan ere, udaberrian egingo dugu oraingoan. Kalean eta elkarrekin egiteko ariketa da Euskaraldia eta uste dugu udaberrian beste aldarte eta giro sozial batekin ekingo diogula.

Euskara aktibatzaileen esku-liburua argitaratu duzue, tresna giarabil dadin.

Euskara aktibatzaileak izango dira herriz herri Euskaraldiaren antolaketan murgilduko diren boluntario eta teknikari guztiak. Haiei eskaini diegu tresna berria, eta gidan aurrez aurreko harremanak berreskuratzeko, sarea ehuntzen joateko eta jende gehiagorengana heltzeko pistak ematen ditugu, besteak beste.

Ahobizi eta belarriprest rolak eta txapak mantendu egingo dira.

Txapak oinarri-oinarrizkoak dira. Batzuetan, kosta egiten zaigu jartzea eta entzuten dugu: "Nik badakit euskaraz". Baina kontua da txapa aldamenekoarendako dela, jakin dezan gurekin lasai egin dezakeela euskaraz, eta estres linguistikoa jaisteko. Bestetik, Euskal Herria zabala da eta balioa eman nahi diegu ahobizi bai belarriprest rolei. Rol horiek jolasean jartzen gaituzte eta jolas horrek mugimendu handia sortzen du. Entitateei dagokienez, aurtan, azken edizioan baino proposamen simpleagoa egingo dugu. Lanketa sakona egingo duten entitateei ari-guneak osatzeko proposamena egingo diegu, positibotzat jotzen delako ariketa taldean modu adostuan egiteko aukera hau.



EUSKARALDIA

Urnietako talde-eragilea

Aballarri guraso elkarte, Bagara taldea, Batzokia, Egape, EH Bildu, Magale, Manttala elkarte, Urnietako Udala, Xoxokako auzo elkarte eta Zanpatuz. Euskaraldiaren edizio berria prestatzen dihardute Urnietako hainbat eragilek. Laster hastekoa da izen-ematea eta, aurrerago, ahobizi eta belarriprest rolei dagozkien txapak banatzeari ekingo diote. Urnietan izena emateko eta txapak hartzeko aukera baliatuko du herriko talde eragileak.

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugu

ANDOAINGO
BATZORDEA
MARTXAN DA

MARTXOAK 13, OSTEGUNA
18:30, URIGAIN

OHARRAK:

Euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua sortu nahi dugu. Kaleko euskalgintza, euskaldun "arruntak" mugiarazi. Bat egin gurekin!

